

Sekretu bat kontatuko dizut.
Oso garrantzitsua den zerbait.
Agian ez zara oraindik ohartu,
baina... **hegalak** dituzu.

Bai. Guztiok ditugu.
Ikusezinak dira eta askatasuna ematen digute.



ISBN: 979-13-87834-49-4 www.nubeocho.com



LIBREA ZARA



Cristina Expósito Escalona

Mo Gutiérrez Serna



nubeOcho

Librea zara

Cristina Expósito Escalona & Mo Gutiérrez Serna



*Mayte-ri, urrunago hegan egiten
ikasteko bere hegalak uzteagatik.
Elkarrekin. Zoriontsu. Libre.*

Cristina Expósito Escalona

Nire hegalei eragiten dien itsasoari.

Mo Gutiérrez Serna



Librea zara
Somos8 bilduma

© testuarena: Cristina Expósito Escalona, 2025
© irudiena: Mo Gutiérrez Serna, 2025
© argitalpenarena: NubeOcho, 2025
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Eres libre*


Lehen argitalpena: Urria, 2025
ISBN: 979-13-87834-49-4
Gordailu Legala: M-20047-2025

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

Librea zara

Cristina Expósito Escalona & Mo Gutiérrez Serna






Sekretu bat kontatuko dizut, zerbait garrantzitsua.

Agian ez zara ohartu, baina... **hegalak** dituzu.

Bai, guztiok ditugu.

Egiatan, zure **hegalak** ikusezinak dira.

Baina askatasuna ematen digute.




Badakizu zer esan nahi duen **askatasunak?**



Nire lagun Sofiak
askatasuna **sentsazio** bat dela uste du,
haizeak aurpegian ematean, arnasa sakon hartu
eta **irribarre** batek ihes egiten dionean
sentitzen duenaren antzekoa.

Gure hegialak ondo erabiltzeko,
entzun egin behar dugu, baina baita **pentsatu**, irakurri
eta gure bizipen eta **esperientzia** pertsonaletatik ikasi ere.





Nire lagun Gaelek dio nahi duena egiten duenean dela librea.

Baina askatasuna ez da hori. Zerbait txarra egiteak

bere **ondorioak** dakartza, eta, batzuetan, larriak izan daitezke.

Behin, nire lagun Juanekin ika-mikan ari nintzela,

bultza egin nion.

Lurrera erori zen eta ni beldurtu egin nintzen.

Eskerrak ez zuen minik hartu!

Zure hegala puskatzerik nahi ez baduzu,
ondo jokatu behar duzu **zure buruarekin**
baita **gainontzekoekin** ere.

Ez duzu inor jo edo iraindu behar, ez eta norbait
gaizki sentiaraz dezakeen ezer egin ere.

Baina, aldi berean, ezin duzu besteek
zu **min zaitzaten** utzi.

EZETZ esaten jakin behar da.

